



ARABAN
EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEKO

PLAN
ESTRATEGIKOA
2025-2029

Argazkiak:
Euskararen Foru Zerbitzua, Arabako Foru Aldundia

Argitaratzailea:
Arabako Foru Aldundia

Inprimatze lanak:
Arabako Foru Aldundiko Moldiztegia

L.G.



ARABAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2025-2029

**Euskararen Foru Zerbitzua
Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza
Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila**

Gasteiz, 2025eko ekainean

ONESPENA

2025ekainaren 25eko Foru Gobernu Kontseiluaren 369/2025 Erabakiaren bidez onetsi zen Araban Euskara Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoa (2025-2029), bai eta jakinarazpena helarazi ere Batzar Nagusietara.

AURKEZPENA

Euskara Arabako ondare baliotsua da, pertsonen arteko komunikazio-tresna eta nor-tasun- eta bizikidetza-ikurra, eta, oraindik orain, XXI. mendean egokitzapen- eta modernizazio-prozesuarekin jarraitzen du, azken hamarkadetan erakunde publikoek Arabako gizartearekin eta euskalzaleekin batera egin duten lanaren ondoren. Horri guztiari esker, hizkuntzaren ezagutza-maila etengabe ari da hazten, eta joan den mendearen erdialdeko pertsona eta talde aitzindariak pentsatu ere egingo ez zuten mailetara iritsi da.

Beharrezkoa da hizkuntzaren ezagutza bultzatzen jarraitzea, baina bada garaia Euskararen erabileraren aldeko apustua egiteko gogo beroz, gizarteko esparru guztietan, hala nola lanean, aisialdian, kirolean edo kulturaren... Azken batean, hala nahi duten pertsonen Euskaraz bizitzeko aukera izan behar dute eskuragarri, oinarrian gizarte eleaniztun, inklusibo eta kohesionatua izanda.

Testuinguru horretan sortu da **Arabako Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoa 2025-2029**. Bertan, Arabako Foru Aldundiak aldi horretarako aurreikusitako jardueraren ildo nagusiak jasotzen dira. Lanek **2019-2023 Euskararen Plan Estrategikoaren** ebaluazioa hartu zuten abiapuntutzat, eta proposamenak **AROA** esparru estrategikoarekin lerrokatuta daude. Esparru estrategiko hori Eusko Jaurlaritzak bultzatu du 2024tik, Euskara biziberri-tzeko eta euskal hitzunik ahalduzko.

Azpimarratu nahi nuke dokumentua **Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Departamentuko Euskararen Foru Zerbitzuak** gidatutako elkarlan interesgarri baten ondorioa dela. Foru Aldundiko, **Udaletako** eta Lurraldeko **Kuadrilletako** teknikariek eta **Arabako Euskararen Batzordea** osatzen duten adituek parte hartu dute lan horretan, Arabako Euskararen errealitatearen isla. Horiei guztiei, nire eskerrik beroenak, egindako lanagatik eta hartutako konpromisoagatik.

Ahalegin horrek guztiak Arabako Euskara sustatzeko tresna bultzatzaile, bideratzaile eta eraginkorra sortu duela sinetsita gaude, emaitza onak ematen ari zaigun elkarlanerako bide horretan jarraitzea besterik ez zaigu geratzen.

Ramiro González Vicente
Arabako Diputatu Nagusia



AURKIBIDEA

1

SARRERA

9

2

AROA MARKO ESTRATEGIKOA

11

3

LANERAKO METODOLOGIA

15

4

HELBURU OROKORRA, MISIOA, IKUSPEGIA

21

5

PROPOSATUTAKO EKINTZAK

23

6

AGINTE TAULA

31



1

SARRERA

Aldakortasun betean dagoen gizarte honetan gure buruari xumeki galdetzen diogu zein ote den euskaratik munduari egiten diogun ekarpena. Euskara nahiz euskal kultura mundu zahar zein berri honetan lekutzeko ahalegina eginez, munduko aniztasunari ekarpena egitea gizarte justu eta ekitatibo bat sortzeko. Funtsean ekarpen nagusi bat egiten diogu, ordea, gure buruari eta gizarteari: gizarte-eraldaketarako eragile izatea.

Hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa ez da berria euskararen ibilbide historikoan, eta orain, etorkizuneko erronketako bat dugun honetan badugu eskarmenturik. Hizkuntzen arteko bizikidetzan eta gutxiagotasun egoeren zaintzan Europa kultural eta eleanitzaren alde egitea aniztasuna onartu eta kudeatzea da. Nortasun propio bakoitza balioan jarri eta polikromia balio positibo modura erakustea. Edozein ekosistematzen jasangarriena delako aniztasuna kudeatzea, gutxiagotasun egoeran dauden elementuak babestu edota zaintzea.

Baina ez da nortasun, sentimendu edota eredu kontu bat bakarrik. Justizia, lege eta eskubide kontu bat ere bada. Euskara hizkuntza ofiziala da Euskadin, gaztelaniarekin batera. Gure helburua da Europan ere euskara hizkuntza ofiziala izatea.

Izan ere, hizkuntza oro bezala, euskara komunikatzeko tresna da euskal elebidunon artean. Euskara bada, horrez gainera, elkarbizitzarako eta gizarte inklusiboago eta kohesionatuagoa eraikitzeko tresna ere; euskara ez baita, XXI. mendean, etxean jasotako hizkuntza bakarrik. Euskal komunitatea osatzen dugu euskara etxean nahiz etxetik kanpo jaso (edota erabiltzen) dugun guztiok. Euskara ulertu eta erabiltzen dugunok. Euskara erabiltzen laguntzen dugunok. Euskara ezagutzen dugunok. Euskararen komunitatera hurbiltzeko daudenak... Euskaldun izatearen definiziorik zabalenera keinu egiten diogunok.

Kultura soziolinguistiko berri baten atarian gaude. Elebitasun orekatuaren bila doan gizartea eta gainera, hiztun eleaniztunen aniztasuna aintzat hartu nahi duena. Euskara erabili eta haren alde egiteko aukera askotarikoak bere egiten dituena. Euskarazko harreman erosoak sortzea da helburua. Babesguneak, euskaraz aritzeko testuinguru babestuak: parte hartzen duten guztiek kontuan hartzen dituzte euskaraz aritzeko aukera eta ahalmen askotarikoak,



eta hizkuntza-estresik gabeko harremana sortzeko baldintzak eraikitzen dira. Hiztunari eta hizketaldiari balioa ematen zaio edozein delarik ere bere jarrera edo ahalmena.

Euskara hedatu nahi dugun neurrian euskaraz jakin edo ez dakitenen pertzepzioan sakontzea dagokigu; pertzepzio eta behar guztiak hurbiletik ezagutu; guztion nahi eta itxaropenak kontuan hartuz aurrera egin.

Eta testuinguru horretan dator gure proposamena, **Arabaren Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoa 2025-2029**. 2019-2023 Planaren ondorioa, behin bere ebaluazioa egin eta gero. Eta lerrotuta dator 2023-2027 Legealdirako indarrean dagoen **Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Planarekin**, non honako helburua jasotzen den:

“Euskara Arabako herritarren nortasun eta kohesio-ezaugarri gisa sakontzea”

Eta bere baitan bi jarduera-ildo proposatzen dira:

- **Gazteak euskaraz bizitzeko espazioak sortzea, arlo digitalari arreta berezia jarritz.**
- **Euskararen zeharkakotasuna sustatzea gizartearen esparru guztietan, kohesio globalerako tresna gisa.**

Arabarekin eta arabarrekin dugun konpromiso horren aurrean Arabako Foru Aldundiak, Euskararen Foru Zerbitzuaren bidez, hurrengo bost urteetarako plana prestatu du, AROA marko estrategiko berriaren arabera, Eusko Jaurlaritzak hurrengo 10 urteotan euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko bultzatutako ekimenari jarraituz.

AROA ez da plana, markoa da, eta horretan oinarrituta sortu dugu plana, aukera eman digulako hausnarketarako zein ekintzak proposatzeko modu egituratuan. 34 ekintza zehaztu ditugu hurrengo bost urteotan garatzeko, euskararen komunitatea indartzeko eta handitzeko asmoz, euskaraz bizitzeko aukerak bermatze aldera, euskal hiztunak ahaldunduz eta hiztun berriak sortzeko nahian. Eta jakin badakigu hori guztia aurrera ateratzeko lankidetzeta dela bide bakarra, euskalgintzarekin eta gainerako gizarte-eragileekin.

Azkenik, jakin beharrekoa da Arabako Foru Aldundiaren euskararen sustapena bi Zerbitzuren bidez egiten dela:

- **Euskara Zerbitzua**, Funtzio Publikoko Zuzendaritzari atxikia, erakundearen hizkuntza-normalkuntzaz arduratzen dena.
- **Euskararen Foru Zerbitzua**, Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari atxikia, Lurraldean euskararen sustapenaz arduratzen dena.

2

AROA MARKO ESTRATEGIKOA

2024an, eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, sortu zen **“AROA, euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa”**, euskararen gizarteak dituen beharrei erantzun egituratua emateko asmoz.


AROAk euskaratik ere gizartea eraldatzeko tresna izan nahi du, euskararen **ekosistema** osoan eragina izan dezaketen erronkak definituz eta bere eginez, euskararen hizkuntza **komunitatea** zabaltzeko eta ahalduntzeko bidean. Horrela, balio nagusi hauek ditu:

- Oroz gaindi, **adostua, egingarria** eta **eragingarria** izatea.
- **Hizkuntza-ekologia**ren begiradatik **aniztasuna** kudeatzea (eleaniztasuna; hizkuntza- eta kultura-aniztasuna).
- **Justizia soziala** eta gizarte-**inklusioa** erdiesteko baliabideak sortu nahiz erraztea, horretarako, **zeharlerrotasuna, lankidetz**a eta **partehartze** koordinatua lehenetsiz.

AROA marko estrategiko zabala da eta ekinean hasteko orube bat eskaintzen duena, eta bertan bil daitezke norbanakoak, eragile sozialak, publikoak zein pribatuak, guztiak ere helburu partekatu bati begira. Markoa den neurrian, tokian tokiko behar eta premiak jasoko ditu, tokian tokiko helburuei egokitua izan dadin. Zazpi ardatzen oinarrietatik abiatuta, eragile bakoitzak bere ekarpena egingo dio gehiago zehaztuz eta osatuz.

Halaxe egin du Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako **Euskararen Foru Zerbitzuak**, lurraldeari begira jarrita marko orokorraren proposamena, marko estrategikoak ardatz estrategiko horien gainean lan egitea proposatuz.





AROA marko estrategikoaren ardatzek ondoko oinarritzko mezua jasotzen dute:

- **Gobernantza**

AROAren nahiari erantzuna emateko egituratze eta lankidetzaren eredu propio bat proposatzen da. Gobernantza eredu jakin bat behar dugu, zeharkakotasunean eta parte-hartze koordinatuan oinarritutakoa, eta era berean, tokian tokiko beharrei lekua egingo diena. Euskara zerbitzuek edota euskalgintzak egingo duen jardunarekin batera, gizartearen esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberritzea.

- **Jarrerak - Motibazioak**

Euskararen aldeotasun edo kontrakotasun ideologikoaren gainean arreta jartzeari erantsiko diogun ariketa izango da hiztunek euskararekiko dituzten motibazioei begira jartzea. Hiztunaren motibo psikosozialetan arreta jarriz hiztun bakoitzak dituen motibazio iturrien gainean lan egiten da, baita horiek eraldatu edo indartzen ere.

- **Ezagutza - Gaitasuna**

Euskararen ezagutzari erreparatzeaz gain, hiztunen komunikazio gaitasunean jarriko da arreta. Komunikazio egoera ezberdinetan euskara dagokion eran baliatzeko gaitasunaz eta horretarako hiztunak dituen behar soziolinguistiko zein komunikatiboez aritzea esan nahi du horrek.

- **Erabilera - Elkarreragina**

Erabilera kontzeptua zabalduz, hiztunen arteko elkarreraginean gertatzen diren egoera komunikatiboei begira jarriz eragitea proposatzen da: euskara ulertu edota erabiltzeko baldintzak, elkarrekintza egoeretako hizkuntzen arteko joan-etorriak, hiztunen arteko bostere harremanen zer-nolakoak, hizkuntza ohiturak...

Aurretik aipatu dugun guztiak sistema hori ondo sostengatzeko kudeaketa-ardatz estrategiko hauek ere behar ditu: berrikuntza, ikerketa-sistematizazioa eta komunikazioa-hedapena.

- **Ikerketa - Sistematizazioa**

Ikerketaren egitekoa izango da euskararen bilakaeraren gaineko jarraipena egiteaz gain, *Aroaren* ardatzek dituzten jakintza beharrak elikatzea. Ezagutza berriaren gaineko ikerketa prozesuan nahiz amaieran sortu diren praktika on eta arrakastatsuak sistematizatzeko estrategia lantzea izango da beste egitekoa.

- **Komunikazioa - Hedapena**

Komunikazioaren barne dimentsioari arreta jartzeko ekimenak lantzeko ardatza da hau. Prozesuan zein amaieran. Norbanakoa, Eragile-taldea edo Komunitatea. Hiru elementu hauen arteko harremanetan eragingo da komunikazio eraginkorra lortzeko. Hedapenaren bidez, berriz, prozesuak eta emaitzak komunikatzeko estrategiak garatuko dira.

- **Berrikuntza**

Euskararen indarberritzean berrikuntza eginez gizarte osoarentzako onuragarri diren irtenbide berriak garatuko dira. Euskara ardatz duen berrikuntza esplorazio betean izango da eta gizarte eraldaketa sortuko du. Berrikuntza prozesuan baliatutako lankidetzak ereduak, baliabideak eta sortutako galdera berriak eragingo dute irtenbide berrien sorkuntzan.



Hori hala izanik ere, tokian tokiko eskumenak baliatuta, AROAren ardatzetan egindako proposamenak bere funtzio zein ahalmenetara eramanez egokitu du 2025-2029 eperako Araban Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoa, eta seira ekarri ditu marko estrategikoaren zazpi ardatzak. Izan ere, AROAk dakarren Berrikuntzaren ardatz estrategikoa gainontzeko ardatz estrategikoetan barreiatzen baita, zehar lerrotasunaren eta lankidetzaren bidetik, nahiz eta Ikerketa/Sistematizazioaren eta Komunikazioa/Hedapenaren ardatzetan berariaz jasotzeko ahalegin egin den.

Hona gure Plan Estrategikoak jasotako sei ardatz estrategikoak eta zortzi erronkak:

ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
GOBERNANTZA		
<p>G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.</p> <p>G.2. Berariazko nahiz zerharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan.</p>		
JARRERAK MOTIBAZIOAK	EZAGUTZA GAITASUNA	ERABILERA ELKARRERAGINA
<p>JM.1. Euskararen aldeko jarrerera areagotu eta hiztunen ahalduztzean, hizkuntza-ohituretan eta portaeretan eragin</p>	<p>EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.</p> <p>EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu</p>	<p>EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.</p>
KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA	KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA	
<p>IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko</p>	<p>KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.</p>	

**Argibide gehiagorako,
hona hemen AROA marko estrategikoaren dokumentura iristeko lotura:**



3

LANERAKO METODOLOGIA

Prozedura parte hartzailea izan da beti lanerako metodologiaren oinarrian, bai 2019an sortu zen plangintzaldian, baita oraingo honetan ere. Eskertzekoa da jarraian aipatuko diren lagun eta erakundeek egitasmo honetarako eman duten denbora eta lana. Espero dezagun kapazak izatea lankidetzaz hori mantentzen hurrengo urteotan.

Arabaren Euskara Sustatzeko 2019-2023 Plan Estrategikoaren ebaluazioa

Planak eskatzen zuen bezala 2023an ebaluazioa egin eta Euskararen Batzordearekin partekatu zen, eta bertan nabarmendu zen, besteak beste, kudeaketak planean hartzen zuen garrantzia.

Hori dela eta, 2019-2023 aldirako planaren ebaluazioan berariaz hartu zen kontuan gure aliatuen balorazioa honako gaien inguruan: lidergoa, zeharkakotasuna, antolamendua, koordinazioa, baliabide ekonomikoak eta finantzabidea, jarraipena, ebaluazioa eta komunikazioa.

Hari horri tiraka, *Arabaren Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren Ebaluaketa* (Aztiker 2022) dokumentuak jasotzen du propio egindako ikerketa kuantitatiboa, eta horri gehitu zitzaion hainbat datu eta ikerketa soziolinguistiko batetik eta, bestetik, aliatu eta eragileen balorazioak eta proposamenak. Hori guztia aintzat hartuta osatu genuen planaren ebaluazioa, emaitza horiek guztiak baliatu ditugula gerora baita diseinurako ere.



Hona, planaren ebaluazioaren parte hartu zuten aliatu eta eragileak:

1. **AEZ-Arabako Euskara Zerbitzuak** (udaletako eta Kuadrilletako euskara teknikariak).
2. Arabako Foru Aldundiko hainbat sailtako ordezkariekin eratutako **Lan Mahaia**.
3. **Arabako Euskararen Batzordea**
4. **Bestelako eragile** batzuekin ahalegin berezia egin genuen, esate baterako, kuadrilletako teknikari soziokulturalekin, haien iritzia eskatu genien eta.
5. Planaren ebaluazioa egiteko prozedura jasota ez bazegoen ere, planean aurre ikusitako eragin esparru garrantzitsuetako zenbait eragileekin ere saiatu ginen biltzen, hala nola arlo sozioekonomikoa, aisia eta kirol arloetakoekin.

Arabako Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoa 2025-2029. Planaren diseinua.

Plan berriari ekiteko orduan aurreko planeko prozedura parte hartzaile bera mantendu izanak erraztu du plangintza, jarraikotasuna bermatu nahian erabaki zen jadanik eratuta zegoen egiturarekin lanean segitzea. Plangintzan ELHUYAR Aholkularitzaren kanpo-laguntza izan da.

Zenbait **lantalde** sortu izan dira prozeduran zehar, esan bezala, aliatuen parte hartzea bermatu nahi izan delako, eta esan daiteke bidea egitea bera ariketa interesgarria izan dela, parte hartze prozesu oro bezalaxe. Halaber, bilera egutegia finkatu zen eta esparruka banatu zen ekarpenak taldekatzeko, baina, jakinik helburua harantzago doala eta arloka baino helburuka edo proiektuka lan egitea dela.

Horiek horrela, hausnarketa eta jasoketarako funtzio ezberdinetarako lantaldeak eratu dira, Euskararen Foru Zerbitzua gidari izanik, bilera egutegi baten baitan.

- **Euskararen Foru Zerbitzuak (EFZ)** Plan Estrategiko berria egiteko arduradun nagusia izanik, aukera izan du Arabako Foru Aldundiaren baliabide eta ezagutza erabiltzeko. Era berean, eskura zituen baliabide eta lidergoa erabiliz Plan Estrategikoak sortzetik bertatik behar zuen komunikazioaz ere arduratu da.

Horretaz gain, ezinbesteko bi eratako laguntza izan du:

- Alde batetik, **ELHUYAR** Fundazioaren aholkularitza izatea, era guztietako kontraste eta kontsultak bideratzeko, bai diseinuan bai prozesuan.
- Bestetik, **Arabako Euskara Zerbitzuen (AEZ)** eskutik joatea, hain zuzen, Plan Estrategikoaren lehen hartzaileak eurak izatea baitzen helburuetako bat.

Hona hemen Arabako Euskara Zerbitzuen zerrenda eta parte hartu duten teknikariena:

- Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuko zerbitziburua eta euskara teknikari bi.
- Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko zerbitziburua.
- Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko zerbitziburua eta hiru euskara teknikari.
- Aiarako Kuadrillako euskara teknikaria.
- Laudioko Udaleko euskara teknikaria.
- Amurrioko Udaleko euskara teknikaria.
- Gorbeialdeako Kuadrillako euskara teknikaria.
- Legutioko Udaleko euskara teknikaria.
- Aramaioko Udaleko euskara teknikaria.
- Lautadako Kuadrillako euskara teknikaria.
- Arabako Mendialdeko Kuadrillako euskara teknikaria.
- Añanako Kuadrillako euskara teknikaria.
- Arabako Errioxako Kuadrillako euskara teknikaria.

Urteak dira Arabako Kuadrilletako eta udaletako euskara teknikariekin koordinazio eta lurralde mailako proiektuak garatzeko taldea ia hilero biltzen dela. Plan berriaren lanekin hasteko, funtsezkoa izan zen kide guztiok izatea AROA marko estrategikoaren gaineko ezagutza orokorra, horretarako propio bilerak antolatu zirela honako helburuekin:

- AROA Marko bateratua azaltzea.
- Arabarako lehentasunak lantzea eta gutxienekoak adostea.

2019-2023 Plan Estrategikoaren egituratik abiatuta, hura AROAren ardatzekin nola bateratu edo ezkondu zitekeen aztertu zen, eta lurralderako lehentasunezko zat jotzen ziren gutxieneko erronkak proposatu ziren, bakoitzak bere egoeratik. Lehentasunezko erronkak eta lan-ildoak finkatu ziren, AROA markoa estrategikoaren arabera.

- **Talde Eragilea** izan da prozesua antolatu eta irtenbideak bilatzeko ardurua izan duen lan-taldea. Neurri zuzentzaileak ezarri ditu, hala behar izan denean, baita al-dian-aldian emaitzak baloratu ere. Azken txostena osatzea Talde Eragilearen kontraste lanaz ondu da, egituratik hasi eta ekintzak bana-banan zehaztuz.
- Partaideak: Euskararen Foru Zerbitzuaren bi euskara teknikariak, zerbitzu burua, EL-HUYAR aholkularitzako bi teknikari, Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaria.
- Guztira 12 bilera prozesu osoan zehar.



- **Diseinu Taldea** osatu zen, honako xedearekin: lurralde osoaren ikuspegia gehitzea udal eta kuadrilletako teknikariek egindako proposamenari, eta goragoko geruza gehitzea. Izan ere, markoaren izaerak berak eskatzen baitu tokian-tokian egindako proposamenak bildu eta guztiak barne biltzen dituen proposamen orokorragoa.

Diseinu Taldean bildu ziren EFZ- Euskararen Foru Zerbitzua, AEZ taldeko ordezkari bi, Euskararen Batzordeko ordezkari bi eta aditu bat. Kuadrillen ikuspegia eta Araba osoko ikuspegia bat zetoze ikusi zen eta ez zirela kontrajarriak, osagarriak baizik; eta osatu egin ziren AEZko teknikariek proposatutako gutxienekoak.

- **Lan Mahaia** taldearen funtzioa berria ez izan arren aurreko planekoa baino sakonago landu da, hain zuzen, ebaluazioaren ondorioetako bat izan zelako euskarak eskatzen duela Foru Aldundiaren sailez sail zehar lerro bezala lantzea, euskararen ikuspegia ez dagoelako erabat txertatuta sail bakoitzaren kudeaketan, eta ondorioz, ezta programe-tan ere.

Honako ordezkari-tza dago Lan Mahaian:

- Gazteria Foru Erakundea
- Gizarte Ongizatearen Foru Erakundea (GOFE)
- Funtzio Publikoko Zuzendaritzako Euskara Zerbitzua
- Kulturako eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua
- Kulturako eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua
- Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako Web Unitatea
- Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzua
- Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila
- Nekazaritza Zuzendaritza
- Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzua
- Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza

Lan Mahaiko kideei AROA marko estrategiko berriaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien, koka-tzen laguntzeko, eta 2019-2023 aldiko plan estrategikoa ebaluatzeko bileran egindako propo-samenak hartu ziren abiapuntu moduan. Bileran egindako proposamenen gehienak ekintza mailakoak izan ziren, eta denek nabarmendu zuten sail eta zerbitzuen arteko lankidetzaren premia.

Indarrean dagoen **Arabako Euskararen Batzordearen** sorrera dekretuak xedatzen du honako 5 hauek direla bere zereginak:

1. Hizkuntza normalkuntzarekin lotura duten gorabehera guztiak aztertzea
2. Aldundiari eta dagozkien erakundeei neurri egokiak har ditzaten proposatzea euskarari buruzko xedapenak hobeto ezarri ahal izateko
3. Hizkuntzaren alorrean eskumena duten aginte publiko guztiek koordinatuta jardun dezaten bermatzeko neurriak proposatzea
4. Araban euskararen erabilera sustatzeko egoki iritzitako neurriak har daitezen proposatzea
5. Araban euskararen erabilera sozialari buruzko partaidetza eta komunikaziorako plataforma izatea.

Jarraian Arabako Euskararen Batzordea gaur egun osatzen duten 23 entitateak eta 4 adituak:

- Arabako Foru Aldundia – Euskara Zerbitzua
- Arabako Foru Aldundia – Kirol Zerbitzua
- Arabako Foru Aldundia – Web Unitatea
- Arabako Foru Aldundia – Arabako Gazteriaren Foru Erakundea
- Berdintasun, Lankidetzeta Eta Kulturartekotasun Zerbitzua
- Arabako Foru Aldundia – Kultur Ekintza Zerbitzua
- AFDA – Arabako Kirol Federazioen Elkarte
- Aiaraldea Euskararen Kontseilua
- AKE-Arabako Kontzejuen Elkarte
- Araba Euskaraz Elkarte
- Arabagara Euskaldunon Elkarguneen Federazioa
- Arabako Alea Komunikazio Taldea
- Arabako Bertsozale Elkarte
- Arabako Campuseko Euskararen, Ikasleen Eta Mugikortasunaren Arloa
- Arabako Erakunde Sanitario Integratua
- Bai Euskarari Elkarte
- Berritzegune Nagusia
- Denon Eskola
- Arabako Euskaltegiak
- Gasteizko Udala- Euskara Zerbitzua
- Geu Gasteiz Euskalduna Elkarte
- Laneki Elkarte
- Lazarraga Kultur Elkarte
- Gidor Bilbao Telletxea
- Roberto González de Viñaspre Gonzalo
- Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba.
- Marta Quintas Quintas.



Arabian modu koordinatuan aritzeko irizpideak emateko gune aproposa da Euskararen Batzordea, eta Batzordeak egin beharreko kontrastea ezinbestekoa. Hori dela eta hiru bilera egin dira planaren inguruan.

- Lehena 2024ko ekainean. Bileran, besteak beste, AROA marko estrategikoaren gainera azalpenak eman ziren, eta Arabako Euskara Zerbitzuekin, diseinu taldearekin eta Arabako Foru Aldundiko Lan Mahaiaren proposamenekin EFZk osatutako plan estrategikoaren behin-behineko zirriborroa aurkeztu zen, eta batzorde kideen ekarpenak eskatu ziren.
- Bigarrena 2024ko urriaren 10ean. Bertan 2025-2029 plangintzaldiaren lehen zirriborroa aurkeztu, azaldu eta banatu zen, abenduaren amaiera bitarteko epea utziz batzordekideen proposamenak, iruzkinak eta bestelakoak jasotzeko.
- Hirugarrena 2025eko urtarrilaren 30ean. Behin batzordekideen kontrastea jaso eta gero, behin betiko plangintza landu zen, bertan jasotzen diren 34 ekintzak aurkeztuz.

Azkenik, esan Euskararen Foru Zerbitzua izan dela Plan Estrategiko honen azken idazketaz arduratu dena.



4

HELBURU OROKORRA, MISIOA ETA IKUSPEGIA

Araban Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoa 2025-2029 AROA marko estrategikora ekarri dugu; plangintzaldi batek oinarri sendoa behar baitu, gaur egungo egoera eta etorkizunean izan nahi dena jasoko dituen. Hori horrela, 2025-2029 epealdirako Araban Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoaren Helburu Orokorra, Misioa, eta Ikuspegia zehaztu ditugu.

2025-2029 aldirako, berriz, honako hau da adostu dugun **HELBURU OROKORRA:**

Arabako testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea eta handitzea, hiztun berriak sortuz eta erakarriz, baldintzak sortzen jarraituz lurraldean euskaraz bizitzeko aukerak bermatze aldera gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeke helburuz, Arabako euskara-zerbitzuekin lankidetzan, baita euskalgingiztarekin eta gainerako gizarte-eragileekin ere.

Jarraian Planaren **MISIOA:**

Kultura soziolinguistiko berria eraikitzea eta zabaltzea.

Datozen bost urteetan Arabako gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatuei marko eta bide orri bat eskaintzea bai euskal hiztun berriak sortzeko baita euskal hiztunak ahalduntzeko; eta, hitz batean, euskararen komunitatea sendotzea, munduko hizkuntza-aniztasunaren baitan gizarte justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraiki ahal izatea.

Aldian-aldian ebaluatua eta egokitua izanik, metodologia parte-hartzaile eta berritzailea baliatzea, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.

Eta, azkenik, **IKUSPEGIA:**

2029. urtean gaude eta Araban ...

- Euskararen transmisioa ziurtatzen jarraitzen dugu.
- Euskal hiztun aktibo eta hartzaile gehiago ditugu gizarte esparru guztietan.
- Euskararen ezagutzaren unibertsalizazioan aurrerapausoak eman dira.
- Gizartean behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak ematen ari gara, eta euskara haiena ere badela entzuten hasi dira.
- Euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak daude; babesgune gehiago ditugu.
- Araban gero eta arnasmune gehiago daukagu.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurerara iristen ari diren herritarrak euskarara hurbiltzen ari dira.
- Arlo sozioekonomikoan gero eta enpresa gehiagok hartu du hautua euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko.
- Aisian eta kirolean modu naturalean euskarazko eskaintza unibertsala da.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egin da.



5

PROPOSATUAKO EKINTZAK

AROA marko estrategikoak arlo operatiboa diseinatzeko lau maila edo kategoria zehazten ditu:

1. Ardatz estrategikoak

Ardatz estrategikoek hizkuntza-politikaren azken helburuak zehazten dituzte, gurean hementik 2029ra arte lortu nahi den ikuspegia garatzeko. Ardatz estrategikoek strategiaren eremu nagusiak deskribatzen dituzte, eta erronken definizioa inspiratzen dute. Erronka horiek epe ertainean bete beharreko konpromiso espezifiko batzuk adierazten dituzte.

2. Erronkak

Erronkek lortu nahi diren lorpenak adierazten dituzte, eta epe ertainerako konpromiso-maila espezifiko bat adierazten dute. Erronkak "lortu" behar denari zuzenduta daude, eta ez "egin" behar denari.

3. Lan-ildoak

Lan-ildoak ardatz estrategikoak xehatzen dituzten dimentsio tematikoak dira, eta erronkak gai zehatzen arabera antolatzen laguntzen dute.

4. Ekimenak

Jarduera-proiektuak edo -programak definitzeko balio duten eragiketa edo ataza multzoak dira. Ekimenak, egoeraren eta erakundearen arabera garatuko dira, horretarako behar diren proiektuak edo programak definituz.

Eredu hori jarraitu da gure Plan Estrategikoan, landutakoa modu antolatuan eta konparagarrian garatzeko eta aurkezteko. Eta plan estrategikoaren egitura osoa hobeto irudikatzeko, modu osagarrian lau maila horiei bosgarren maila gehitu zaio, ekintzen maila.

5. Ekintzak

Arabaren Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan jaso diren 34 ekintza ekimenetan agertzen diren jarduerak edo proiektuak edo programak dira. Ekintza bakoitzak lotura zuzena dauka kokatuta dagoen ardatzarekin eta dagokion erronkarekin. Jarraian dituzue 34 ekintzen zerrenda.



1.
ARDATZ ESTRATEGIKOA:
GOBERNANTZA

ERRONKA G.1.		
Euskararen normalizazioa agenda publikoaren erdigunera eraman		
LAN ILDOA G.1.2.		
Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.		
1	Hakoba lan-mahaien bitartez elkarlana sustatu.	Ekimena G.1.2.1
2	Herri Erakundeen dirulaguntza-deialdien eta hitzarmenen gaineko hausnarketa egin eragileekin batera.	Ekimena G.1.2.3
3	Euskararen Batzordea dinamiko eta parte-hartzaile izan dadin neurriak hartu.	Ekimena G.1.2.4
4	Euskararen erabileran erreferenteak diren elkarte eta babesguneak identifikatu, geo-mapa egin eta ezagutarazi.	Ekimena G.1.2.4
LAN ILDOA G.1.3.		
Euskararen biziberritzean aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu		
5	Normalkuntzan sentsibilizazioa egite aldera, euskara biziberritzeko ekimenak eta mezuak zabaldu bai AFAko arduradun politikoen artean, baita tokiko eta kuadril-letako arduradunei.	Ekimena G.1.3.1
ERRONKA G.2.		
Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan		
LAN ILDOA G.2.1.		
Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu		
6	Etorri-berrientzako Udaletako harrera-planetan txertatzeko hizkuntza-politika ja-soko duen protokolo generikoa sortu elkarlanean.	Ekimena G.2.1.2
LAN ILDOA G.2.2.		
Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu		
7	Aldundian sailen edo atalen bitartez elkarlana antolatu euskararen sustapen ba-teratua bideratzeko.	Ekimena G.2.2.2

2.
ARDATZ ESTRATEGIKOA:
JARRERA / MOTIBAZIOA

ERRONKA JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin		
LAN ILDOA JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu		
8	Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu.	Ekimena JM.1.2.2
9	Euskaraldia, Korrika, Barra-barra, Araba euskaraz, Durangoko Azoka, Arabako tokiko bertso-eskolak... bezalako ekintzak lagundu, sustatu.	Ekimena JM.1.2.2
LAN ILDOA JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin		
10	Euskara eta euskal kultura sustatzeko Arabako Foru Aldundiko ekimenen presentzia aztertu eta hala badagokio hobekuntzak proposatu.	Ekimena JM.1.3.5
11	Euskara eta euskal kultura sustatzeko Lurraldeko ekimenen presentzia aztertu eta hala badagokio hobekuntzak proposatu.	Ekimena JM.1.3.5
12	Arabian euskara eta euskal kultura sustatzeko eskaintza ireki programatzaileekin elkarlana abiatuz.	Ekimena JM.1.3.5

3.
ARDATZ ESTRATEGIKOA:
EZAGUTZA / GAITASUNA

ERRONKA EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin		
LAN ILDOA EG.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri		
13	Transmisioan laguntzeko baliabideak eskaini, etxean 0-6 eta 6-12 adin-tarteetarako euskarazko materiala banatu, eta sentsibilizazio-saioak aktibatu	Ekimena EG.1.2.1
LAN ILDOA EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.		
14	Aisia- eta kirol-hezitzaileentzat programa bereziak sortu.	Ekimena EG.1.3.2
ERRONKA EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu		
LAN ILDOA EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu		
15	Ahozotasunean dauden praktika egokiak identifikatu eta zabaldu hainbat formatutan.	Ekimena EG.2.1.4
LAN ILDOA EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu		
16	Euskalduntze xede talde jakinak sor daitezen aztertu eta bultzatu.	Ekimena EG.2.2.1
17	Euskalduntze Lan Mahaiarekin euskalduntze-prozesua finantzatzen jarraitu, laguntza publikoak antolatu eta komunikazio bateratua eskaini.	Ekimena EG.2.2.1

4.
ARDATZ ESTRATEGIKOA:
ERABILERA / ELKARRERAGINA

ERRONKA EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berriazko estrategiak garatu		
LAN ILDOA EE.1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu		
18	Izaera desberdinetako Arabako enpresetan Euskara Lan eta Zerbitzu hizkuntza izateko hizkuntza-aholkularitza zerbitzua eskaintzea.	Ekimena EE.1.1.3
19	Heziketaren eta enpresen arteko zubi lana sustatu. Praktikaldiak euskaraz izan daitezen sustatu.	Ekimena EE.1.1.3
20	Lanabes lantaldekideekin hitzarmenak sustatu eta Arabako enpresen arteko foroa antolatu.	Ekimena EE.1.1.3
21	Aisialdian eta kirol eskaintzan euskararen erabileran eragiteko diagnostiko bana egin, eta ondorioz dagozkien ekintza planak proposatu eta garatu (mikro-planak, praktika komunitateak, topaketak...).	Ekimena EE.1.1.5
22	Euskarazko hedabideak finantzatzen jarraitu eta laguntza publikoak antolatu.	Ekimena EE.1.1.7

6.
ARDATZ ESTRATEGIKOA:
IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA

ERRONKA IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.	
23	Arabako Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoaren ebaluaketak egin.
24	Arabako gizarte pertzepzioak jasotzeko ekimenak abian jarri eta jarraipena egin.
25	Kale neurketak egin, gazteen erabilerari lotutako ikerketak...



7.
ARDATZ ESTRATEGIKOA:
KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA

ERRONKA KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu		
LAN ILDOA G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu		
26	Herritarren hizkuntza-eskubideak indartzeko diskurtsoa sortu eta zabaldu.	Ekimena G.1.1.2
LAN ILDOA JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzia eragin		
27	Arabako euskararen pertzepzioaren azterketaren ondorioetatik plangintza bat abiatu euskarara hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakartzeko.	Ekimena JM.1.1.2
28	Euskara ikasten eta erabiltzen hasteko motibazioan eragin beste herrialde batzuetatik etorri eta euskara ikasi dutenen esperientziak baliatuz (non, nola, zertarako...).	Ekimena JM.1.1.3
LAN ILDOA JM.2.2. Euskararen erakargarritasuna landu		
29	Arabako gazte-erreferenteak identifikatu (musika, kultura, kirola, komunikazioa...) eta programa bat egin.	Ekimena JM.2.2.1
30	Euskal hiztun komunitatea hedabide elebarrak erabiliz ikusgarriago agertu dadin estrategiak abian jarri.	Ekimena JM.2.2.1
LAN ILDOA G.1.3. Euskararen indarberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu		
31	AFAko zein toki-erakundeetako euskara-planak herritarrei eta interesa izan dezaketenei aurkezteko plangintza osatu eta abian jarri.	Ekimena G.1.3.3
LAN ILDOA EE.1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.		
32	Lanabes programa sustatu elkarte eta enpresa pribatuetan.	Ekimena EE.1.1.3
33	Euskarari lehentasunezko lekua eman Aldundiaren sare sozialetan.	Ekimena EE.1.1.6
34	Ingurune digitalean espazioak irabazteko ekimenak sustatu.	Ekimena EE.1.1.6

1.

ARDATZ ESTRATEGIKOA:
GOBERNANTZA

ERRONKA

Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman

LAN ILDOA

Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean

3 EKIMEN

4 EKINTZA

LAN ILDOA

Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu

EKIMEN 1

EKINTZA 1

ERRONKA

Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan

LAN ILDOA

Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu

EKIMEN 1

EKINTZA 1

LAN ILDOA

Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu

EKIMEN 1

EKINTZA 1

2.

ARDATZ ESTRATEGIKOA:
JARRERA / MOTIBAZIOA

ERRONKA

Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hitzunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin

LAN ILDOA

Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu

2 EKIMEN

2 EKINTZA

LAN ILDOA

Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin

3 EKINTZA

3.

ARDATZ ESTRATEGIKOA:
EZAGUTZA / GAITASUNA

ERRONKA

Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin

LAN ILDOA

Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri

EKIMEN 1

EKINTZA 1

LAN ILDOA

Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan

EKIMEN 1

EKINTZA 1

ERRONKA

Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu

LAN ILDOA

Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeke baliabideak handitu eta tresnak sortu

EKIMEN 1

EKINTZA 1

LAN ILDOA

Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu

EKIMEN 1

2 EKINTZA

4.

ARDATZ ESTRATEGIKOA:
ERABILERA / ELKARRERAGINA

ERRONKA

Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu

LAN ILDOA

Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu

3 EKIMEN

6 EKINTZA

6.

ARDATZ ESTRATEGIKOA:
IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA

ERRONKA

Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko

EKIMEN

3 EKINTZA

7.

ARDATZ ESTRATEGIKOA:
KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA

ERRONKA

Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu

LAN ILDOA

Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu

EKIMEN 1

EKINTZA 1

LAN ILDOA

Euskaldun izatearen kontzientzian eragin

2 EKIMEN

2 EKINTZA

LAN ILDOA

Euskara erakargarri egin

EKIMEN 1

2 EKINTZA

LAN ILDOA

Euskararen indarberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu

1 EKIMEN

1 EKINTZA

LAN ILDOA

Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu

2 EKIMEN

3 EKINTZA

EUSKARAREN FORU ZERBITZUA
**ARABAN EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA**
2025-2029

Laburbilduta:

6 Ardatz Estrategiko
8 Erronka
16 Lan Ildo
34 Ekintza

34 ekintzen bidez honako esparruak jorratuko dira:

- Euskararen Foru Zerbitzuaren **barne funtzionamendua eta kudeaketa** (1., 2., 9., 10., 11. eta 23. ekintzak)
- **Arabako Euskararen Batzordearen** dinamika (3. ekintza)
- Euskararen **gizarte-erreferenteen** sustapena (4. eta 29. ekintzak)
- Euskararen sustapena **aisian eta kirolean** (14. eta 21. ekintzak)
- Arlo **sozio-ekonomikoan** euskararen sustapena (18., 19., 20. eta 32. ekintzak)
- **Transmisioa eta ahozketasunaren** sustapena (6., 8., 13., 15., 16., 17. eta 28. ekintzak)
- **Arabako Foru Aldundiaren beste sailekiko eta toki-erakundeekiko** lankidetzak (5., 7. eta 12. ekintzak)
- Euskararen inguruko **diskurtsoa, pertzepzioa** eta horren guztiaren **komunikazioa** (22., 24., 25., 26., 27., 30., 31., 33. eta 34. ekintzak)

EBALUAZIOA eta JARRAIPENA direla eta, urtero **Kudeaketa Plana** zehaztuko du **Euskararen Foru Zerbitzuak** urtarrilean, bertan urte osorako aurreikusitako eta aurreko urteko ebaluazioa kontuan izanda. Proposamena **Arabako Euskararen Batzordean** aurkeztu eta kontrastatuko da.

Horretaz gain, plangintzaldiaren erdialdean, 2027an, **Tarteko Ebaluazioa** aurreikusita dago.

6

AGINTE TAULA

Aginte Taula definitu dugu Estrategian zehaztu diren helburuen lorpen mailaren berri jaso ahal izateko. Bere oinarrian aurreko plangintzaldian erabili zenaren adierazleak daude, horrek segidaren aukera bermatzen digu. 2025-2029 epealdirako adierazle berri batzuk ere definitu dira, ebaluazio eta jarraipen egokiagoa eta osotuagoa egin ahal izateko.

	ADIERAZLEEN DESKRIBAPENA	Abiapuntua 2024	Helburua 2029
1	Euskararen ulermena Araban (%)	% 51,68	% 57,00
2	Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko Araban	% 33,17	% 38,00
3	Euskararen erabilera Araban (%)	% 4,80	% 8,00
4	Erabilera euskaraz aisian, haur eta gazteen artean(%)	% 36,62	% 41,00
5	Erabilera euskaraz kirolean, haur eta gazteen artean (%)	% 58,80	% 61,00
6	Urtero Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzaz lagundutako arabarrak Arabako euskaltegietan	750	≥ 850
7	Euskarazko kultura eskaintza kultura eskaintza guztiarekiko, AFAn	% 27,63	% 40,00
8	Herritarrekiko harremanak euskaraz administrazioan (EJ + AFA) Araban	% 9,95	% 12,00
9	Udal-zerbitzuetako langileekin herritarren euskararen erabilera Araban	% 9,40	% 12,00
10	Arabako herritarren euskararekiko aldeko jarrera	% 53,30	% 60,00
11	Planaren betetze-maila	% 77,03	% 100,00
12	Gastu-aurrekontuaren betetzearen urteko ehunekoa	% 100,00	% 100
13	Urtean EFZren zerbitzu hartzaile izan diren Arabako Udalen ehunekoa	% 83,02	≥ % 95
14	Planaren ebaluazio kualitatiboa	% 66,42	% 80
15	Aliatuek egindako ebaluazioa	% 59,26	≥ % 70
16	Bezeroek egindako ebaluazioa	% 80	≥ % 85

ARABAN
EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEKO

PLAN
ESTRATEGIKOA
2025-2029